

LANKIDETZA-HITZARMENA

.....(e)n, 2024ko(a)ren(e)an

BILDUTA

Alde batetik:

Jauna/Andrea:....., adinduna,IFZ duena

Bestetik:

Jauna/Andrea: , adinduna, IFZ duena

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenakerakundearen izenean eta ordezkari gisa, haren..... den aldetik. Erakundea Elkarteen Erregistroan izena emanda dago, eta hauek dira haren IFK eta helbide fiskala:

Bigarrenakenpresaren izenean eta ordezkari gisa, haren.....den aldetik. Hauek dira enpresaren IFK....., EJSN(nagusia)..... eta helbide fiskala.....

Bi alderdiek elkarri legezko gaitasun nahikoa aitortzen diotelarik hitzarmen honetarako,

ADIERAZTEN DUTE

- I.erakundeak Lagundutako Enplegurako proiektu bat sustatu eta gauzatu duela.
- II. Proiektu horren helburu nagusia dela desgaitasun duen pertsonak laneratzea, Lagundutako Enpleguaren metodologiaz baliatuz.
- III. Erakunde sustatzaileak behar diren ekintza guztiak egingo dituela, desgaitasuna duen pertsona lanpostura egoki dadin.
- IV. Ez erakunde sustatzaileak, ez erakunde enplegu-emaileak ez dutela inolako ordain ekonomikorik jasoko, programa honetan sartzen diren ekintzen truke.
- V. Enpresa enplegu-emaileak lan-prestakuntzarako ekintzak onartzeko eta errazteko konpromisoa hartzen duela, bai eta barne-laguntzari bide ematekoa ere, laneratze-prozesuak iraun artean.
- VI. Hauek izango direla lan-prestakuntzarako ekintzak:
 - Lanpostuari dagozkion trebetasunez jabetzeko estrategiak garatzea.
 - Gainerako lankideekiko gizarte-elkarrekintza sustatzea.
 - Zehaztutako lan-plana enpresak izendatutako arduradunarekin koordinatzea.
 - Programaren segimendua eta ebaluazioa egitea.
- VII. Aipatutako desgaitasunak dituzten pertsonak lan-munduan behar bezala txertatzeko ekintzak garatzeko, aurreikusita dagoela, aldez aurretik, pertsona horiek **hilean** ___ orduz prestatzea, denbora-tarte batean ___ / ___ / ___ - ___ / ___ / ___ . Dena den, horretan emandako denbora aldatzeko aukera izango da, enpresan lanean hastearekin zerikusia duten beharrak zer-nolakoak diren. Halakorik gertatuko balitz, ordutegi-aldaketa atxiki beharko litzaioke hitzarmenari, aldaketa zer denbora-tarteri dagokion zehaztuta.

Eta aurrean esandako guztiarekiko adostasunaren adierazgarri, bi alderdiek, nor bere izaera duela, hitzarmen hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Entitatearen sinadura

Enpresaren sinadura